

Hezitzaileak eta Irakasle laboralak

2015eko ekainaren 23an eta uztailaren 15an burutatako parekideak

Bi bilera hauetan landu diren puntu garrantzitsuenak:

1. LP: Lanpostuen Zerrenda (*RPT: Relación de Puestos de Trabajo*)

Kategoria guztietan lanpostuak bi motatakoak dira:

- **LZ/RPT ofizialeko lanpostuak:** Hauek dekretu batean argitaratzen dira (gure sektoreko azkena 2006koa da). Zerrenda honetan denboran zehar eta Berritzegune bakoitzean kontsolidatu diren lanpostuen zenbakiak (ez ikastetxeen izenak) agertzen dira, kategoria guztienak. Orokorrean, lanpostu hauek langile finkoek betetzen dituzte **sektoreari egonkortasuna emanez**.
- **Funtzionamendu estrukturaleko lanpostuak:** Hauek dira ikasturte eta kategoria bakoitzean dauden lanpostu errealak, finko eta ordezkoenak.

LZ dekretua 2006tik eguneratu gabe izatearen ondorioz egonkorrak diren lanpostuak behin-behinekoak baino askoz gutxiago dira, sektorean egonkortasuna urria izanik. Behar handia dago LZ-ko lanpostuak handitzeko.

Uztaileko 15eko Batzorde Parekidean ontzat eman genion Hezkuntza sailetik LZ handitzeko jaso genuen azken proposamenari. Prozesua martxan dago (administrazioko beste departamentu batzuek ere onartu behar dute) eta urtea amaitu baino lehen dekretua argitaratzea espero dugu. Beraz, **aurtengo Eibarko ordezkoen esleipena beti bezalakoa izango da.**

2. Ordezkoen Eibarko esleipena.

Abuztuaren 27an izango da ordezkoezako esleipena Eibarren, beraz aurreko igandean (abuztuaren 23an) egunkarietan iragarriko da ordutegia eta, Hezkuntza Laguntzako Espezialisten kasuan, goizeko eta arratsaldeko txanda bakoitzean zein puntu arteko langileak dauden deituak .

Gutxi gora-behera esleituko diren plazak dira:

	Gipuzkoa		Bizkaia		Araba	
	Osoak	Partzial.	Osoak	Partzial.	Osoak	Partzial.
Fisioak	--	2	8	1	1	1
ZH Interpreteak	2	--	6	3	4	--
Lanerako Terapeutak	1	--	3	--	--	--
Trnaskriptoreak	1	--	2	--	1	--
H.L. Espezialistak	36	53	106	83	68	28

B
A
T
Z
O
R
D
E

P
A
R
E
K
I
D
E
A

Orokorrean, Hezkuntza Laguntzako Espezialisten kolektiboan 18 plaza inguru gehiago aterako dira iazko esleipenarekin alderatuta, eta gainontzeko kolektiboetan kopurua mantentzen da. Lanpostu gutxiago ez daude, baina... hauek nahikoak izango dira datorren ikasturtean ikastetxeetan egongo diren behar guztiei erantzun egokia emateko???

steilastik bi eskaera egin dizkiogu administrazioari:

- Ikasturtero hezkuntza laguntzako espezialista, fisioa, etabar asignatuta daukaten ikasleen kopurua sindikatuoi helaraztea, horrela jakin dezakegu lanpostuen igoera eta ikasleena proportzionala den edo ez.
- Inklusioari erantzun egokia ematen zaion hala ez baloratzeko egiten dituzten hausnarketetatik gure sektoreko langileak kanpoan ez uztea.

3. HAUSPOA

Ikastetxe batzuetan hauspoa proiektua martxan dago, hau da arratsaldez klaseak ematen zaizkie nahi duten ikasleei. Hauek boluntarioak dira ikasleentzat, baita hauetan irakasleen parte hartzea ere. Hezkuntza Laguntzako Espezialisten kasuan orain arte ez zegoen argi parte hartze hau borondatezkoa zen hala derrigorrezkoa, eta azkenik **lortu dugu** administrazioak argi adieraztea Hezkuntza Laguntzako Espezialistentzat ere baldintza berdinak aplikatuko direla, hau da:

Hezkuntza Laguntzako Espezialisten kasuan, irakasleek daukaten tratamendu berdina izango dute, hau da **inplikazioa boluntarioa da**.

4. IRAILETIK AURRERA SORTZEN DIREN BEHAR BERRIEN KONTRATUEN IRAUNPENA

steilastik eskaera zuzena egin diogu administrazioari irailean eta urrian zehar sortuko diren behar berriak betetzeko kontratatuko diren langileen kontratuak abuztuaren 31ra artekoak izateko. Aurreko urteetan horrela izaten zen, baina administrazioak unilateralki aldatu zuen irizpidea urriaren 1etik aurrerako kontratuak ekainaren 30 arte eginez.

Gure ustez, irailean eta urrian oraindik sortzen dira behar berriak ikastetxeetan eta hauek betetzeko kontratatzen diren langileen kontratuek ikasturte osoko kontsiderazioa izan behar dute, eta ikasturtea abuztuaren 31n bukatzen da, ez ekainean.



ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	NAFARROA
Eulogio Serdán, 5. behea 01012 – Gasteiz Telf.: 945 14 1104 Email: araba@steilas.eus	Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu) 48003 – Bilbo Telf.: 94 410 02 98 Email: bizkaia@steilas.eus	Baso-txiki, 30-34 (atzekaldea) 20006 – Donostia Telf.: 943 46 60 00 gipuzkoa@steilas.eus	Joaquin Beunza, 4 - 6 31014 – Iruñea (Rochapea) Telf.: 948 21 23 55 nafarroa@steilas.eus